

Arartekoaren 2018ko ekainaren 19ko Ebazpena. Horren bidez, Ararteko erakundeko datu pertsonalak tratatzeko jardueren barruko erregistroa onartu da.

EBAZPENA

Joan den maiatzaren 25ean jarri zen indarrean Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorra, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (hemendik aurrera, DBEO). Pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, datu pertsonalak tratatzeari eta datu horiek aske zirkulatzeari dagokienez.

Arartekoak, DBEOen ezarritakoa betez, zenbait antolaketa-neurri eta neurri tekniko hartu ditu, besteak beste, bere pribatutasun-politika argitaratu du, eta DBEOren 30.1 artikuluan aurreikusitako tratamendu jardueren erregistroa prestatu. Ebazpen honen bitartez, datu pertsonalak tratatzeko jardueren barruko erregistroa onartu da.

Horregatik guztiagatik, Arartekoko datuak babesteko ordezkariak hala proposatuta eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- eman dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

1. Arartekoko datu pertsonalak tratatzeko jardueren barruko erregistroa onartzea (ebazpen honekin batera agertzen da).
2. Ebazpen hau Arartekoaren web orrian argitaratzea, edonork horren berri izan dezan.

Manuel Lezertua Rodríguez
Arartekoa



Gasteizen, 2018ko ekainaren 19an